

**HKEE-REN PRENTSA OHARRA, KONTUEN EPAITEGIAK 1.035/2014 FISKALIZAZIO-TXOSTENEAN EGINDAKO GOMENDIOEN JARRAIPEN-TXOSTENARI BURUZKOA, AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEARI ETA MENDEKOTASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONAK ZAINTZEARI BURUZKO ABENDUAREN 14KO 39/2006 LEGEA BEHAR BEZALA APLIKATZEKO AUTONOMIA-ERKIDEGOEK HARTUTAKO KUDEAKETA- ETA KONTROL-NEURRIEI BURUZKOA**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak joan den urtarrilaren 27an aho batez onartu zuen Kontuen Epaitegiak 1.035/2014 fiskalizazio-txostenean egindako gomendioen jarraipen-txostena, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea behar bezala aplikatzeko autonomia-erkidegoek hartutako kudeaketa- eta kontrol-neurriei buruzkoa, EAEn esparruan.

Lan hori Estatuko gainerako kanpo-kontrol-eko organoekin eta Kontuen Epaitegiarekin koordinatuta egin da, eta txosten horretan Estatuko autonomia-erkidego guztiei oro har egindako bederatzi gomendioak betetzeko hiru foru aldundiek hartutako neurriak aztertu dira. Gainera, mendekotasunaren arreta finantzatzeko iturri publikoak eta pribatuak aztertu dira.

Bederatzi gomendioetatik zortzi bete dira jada eta abian da azkena, espediente elektronikoa ezartzeari dagokiona.